

### AZALPENA:

Pasaiako badia, zalantzarik gabe, Gipuzkoak hurrengo hamar urteetan duen erronka garrantzitsuenetako bat da. Atzerapen urteren ondoren, **gure hiri-inguruneke zonalde degradatuenetako batek hainbat faktore esanguratsuren bateratzearen ondorioz, eraldatzeko benetako aukera dauka**. Urban Plana, udaletxeak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Portuko Aginpidea, Merkataritza Ganbara,...2004 urtean egingo den MANIFESTA 5, Arte Garaikideko Bi urtekoa bera ere, ikuspuntu zabal batean, ados jarri dira portu-hiria arazoari irtenbide bat bilatzeko .

Bestalde, kanpo-portuaren proiektuak badiaren etorkizunaren inguruko eztabaida sakona dakar, oraindik konpondu gabeko eztabaida, baina beharrezko zorroztasunez eta alde-aurretiko ideiarik gabe, datozen hilabeteetan sakonki aztertu beharko dena.

**HELBURUAK:** Batez ere D-1 helburuan jartzen du indarra: *“Donostialdeko hiri-komunitatea artikulatu, azken hau, koordinatutako, orekatutako eta sostengatutako hiri-espazio bezala ulertuz*

### DESKRIPZIOA:

Kanpo-portu baten eraikuntzak badia zeharo aldatuko luke, baina hau, une hauetan, beharrezko akordiorik ez duen irtenbidea da. Horregatik, **kanpo-portu baten eraikuntzaren bideragarritasunari buruzko eztabaida bat** hastea beharrezkoa da, horrenbesteko garrantzia duen proiektu hau, eskatu behar zaion lasaitasunez aztertuz.

Era berean, begirada etorkizunean (erabilerak, proiektuak, eta abar) jartzea ahalbide dezakeen badia guztiaren inguruko **hausnarketa estrategiko** bati ekitea beharrezkoa gertatzen da. Badiaren inguruan, bat etorritako ikuspuntuak Pasaiako gizatalde eta erakundeen aldarrikapen jarraituak diren badiako **hirien giza-onbideratzea eta ekonomiaren** hobekuntzei aurre egiteko erakundeen eta gizartearen arteko adostasuna ahalbidetuko luke. Azkenik, 2004an Manifesta 5, Arte Garaikidearen bi urtekoaren barnean, badiako hiri-eskenatokien inguruan, Rotterdameko Berlage Institutua egiten ari den hausnarketa ere, hipotekaren pisua arinagoa izango lukeen eta “imajinario handiagokoa” izango litzatekeen badiaren ikuspuntu bat eraikitzeke aukera aparta da , zalantzarik gabe, Pasaiarentzat bereziki erakargarri egiten lagunduko du.

Azken batean, ingurunearen modernizatzailea den eta etorkizun oparo bat duen berriztatutako badia baten oinarriak jartzea. Portuen espazioetara loturiko munduko hirien proiektuak erreferentzia dira bere jarduera ekonomiko eta sozialen dinamizazio eta abangoardia faktore gisa.